

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

ISLADA gure laguntza enpresak, aurrez azaldu bezala, herritarrari (hau da, gure onuradunei) bizitzarako behar duen arlo guztietan laguntzeko baliabideak eskaintzea izango du helburu. Horretarako, harremantzeko modu ezberdinak eskainiko ditugu eta kasu bakoitzera egokituko gara.

Gure helburua komunitate osoa batera heztea izango den arren, harreman pertsonalizatua eta APP bitartekoa ere eskainiko ditugu.

Orain gure onuradunekin harremantzeko motak definituko ditugu:

1. Komunitateko harremanak izango dira → hauek, gai espezifiko bateri lotuta egongo dira eta herri guztiari zabalduko zaio mezua. (APP bitartez, etxez etxeko informazioa banaketa egiten edo eta herriko panel informatiboetan jartzen). Bilera, ponentzia edo ikastaroak eskainiko ditugu herritar guztientzat.



2. Harreman pertsonalizatua edo laguntza pertsonala → herritar bakoitzak duen kezka zalantza edo behar den laguntza ematea izango da gure zerbitzua. Horretarako bai telefono edo IKT-ak erabiliko ditugu aurrez-aurreko bilera pertsonalizatu batetarako ordua hartzeko.
3. APP bitarteko harremana → Egon diren bilera, ponentzia eta kurtso guztien informazio guztia web orri batean egongo da zintzilikatua eta herritar orok ikus dezake. Honekin batera, herritarrek duten kezkak eta zalantzak jarri dezakete eta guk modu publikoan erantzun dezakegu.

Azkenik, gure APP-ak beste atal bat izango du: Iradokizunen txokoa izenekoa. Txoko honetan balorazioak jasoko ditugu, gure enpresak hobekuntzak izan ditzan eta herritarren beharrak ase ahal izateko.

Azkenik eta modu batean guztia borobiltzeko, gure onuradunak, herritar eta pertsona bezala beteta sentitu daitezten; eskainitako zerbitzu guztiak erabil dezaten eskatzen dugu **ISLADA laguntza enpresa aktiboaren** partetik.